

ALBISTE FALTSUAK IDENTIFIKATZEKO 5 AHOLKU



Zer da albiste faltsu bat?

Albiste faltsua bat informazio faltsu edo engainagarria da, sarritan sentsazionalista da eta benetako albistea balitz bezala aurkezten da. Hainbat forma har ditzake ohiko edo online komunikabideetan, hala nola, fabrikatutako artikulua, manipulaturako argazki edo bideoak edo titular engainagarriak.

1

Iturria egiaztatu

Egin ezazu zeure buruari galdera hauek iturria egiaztatzean. Web helbidea (url) zuzena da? Iturria gobernu, hezkuntza-erakunde edo beste iturri sinesgarri batekoa da? Webgunea edo artikulua berriki eguneratu da?

2

Emozioa ebaluatu

Albiste faltsuak erantzun emozionala lortzeko diseinatu daude. Albiste faltsuek clickbait edo zentzuzko izenburuak erabiltzen dituzte irakurleek klik egin dezaten modu zehatz batean pentsatzeko. Zein izan zen zure hasierako erreakzioa titularra irakurtzean?

3

Iturri desberdinak bilatu

Iturri desberdinak begiratu informazioa egiaztatzen duten ikusteko. Bilatu hiru iturri sinesgarri gehiago emandako informazioaren sinesgarritasuna egiaztatzeko.

4

Ikuspuntu kritikoa erabili

Ondo begiratu iturria, oker idatzitako hitzak, gramatika-akatsak edo data okerrak dauden ikusteko. Iturriaren egileari edo erakundeari buruzko bilaketa azkarra egin gaiari buruz idazteko gai direla ziurtatzeko.

5

Edukia egiaztatu

Edukia irakurtzean honako hau pentsatu: Zein da informazioaren helburua? Iturria editoriala bada, egilearen iritzia jasoko du. Iturria satirikoa bada, edukia umoretsua izan nahi da eta ez faktikotzat hartu behar.

